

10/10

*i*rizpena

INKLUSIO AKTIBOKO HITZARMENEN  
Dekretu-proiektuari buruzkoa

Bilbo, 2010eko uztailaren 30ean



CES  
EGAB

Consejo Económico  
y Social Vasco

Euskadiko Ekonomia eta Gizarte  
Arazoetarako Batzordea



*i*rizpena 10/10



## **I. AURREKARIAK**

---

Uztailaren 16an, Lan eta Gizarte Gaietarako Sailaren idazki bat jaso zen Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordean, Inklusio Aktiboko Hitzarmenen Dekretu-proiektuari buruzko txostena eskatzeari dagokiona, Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordearen ekainaren 27ko 9/1997 Legearen 3.1.b) artikuluan ezarritakoarekin bat etorritz.

Inklusio aktiboko hitzarmen horiek, inklusio hitzarmen gisa bildu direnak diru-sarrerak bermatzeko eta gizarteratzeko abenduaren 23ko 18/2008 Legean eta inklusio aktiboko hitzarmen gisa Lege horren aldaketan, bazterketa arriskua edo bazterketa prebenitzeko eta gizarteratzea eta laneratzea errazteko beharrezko gizarte edota laneko ekintza espezifikoak ezartzen dituen tresna lez bideratzen dira. 18/2008 Legea aldatu duen Legean ezarri da (Batzorde honen irizpena jaso duena, 2010eko ekainaren 35eko 7/10 Irizpena) “aktibo” adjektiboa, baina gaur egun ez dago ez promulgatuta ez argitaratuta.

Berehala bidali zitzairen dokumentuaren kopia Batzordearen osoko bilkurako kide guztiei, proposamenak eta iritzia eman zitzaten eta horiek guztiak Lan Batzordeari igortzeko, Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Funtzionamendu Arautegian ezarritakoarekin bat etorritz.

Gizarte Garapenerako Batzordea 2010eko uztailaren 26an bildu zen, irizpen aurreproiekturako lehen proposamena eztabaidatzeko xedez. Egun berean, ondoko Irizpen-proiektua onetsi zuen Batzordeak, eta Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordearen osoko bilkurari aurkeztu zitzaion 2010eko uztailaren 30ean eta aho batez onartzen da.

## **II. EDUKIA**

---

Inklusio aktiboko hitzarmenen Dekretu-proiektuaren testuak 4 kapitulu dakartza, eta guztira, 23 artikulua, 2 Xedapen Iragankor, Xedapen Indargabetzaile bat eta hiru Azken Xedapen ditu. Honako hauek dira:

## I. kapitulua. Xedapen Orokorrak

1. artikulua. Xedea
2. artikulua. Definizioa eta ezaugarriak
3. artikulua. Printzipioak

## II. kapitulua. Inklusio aktiboko hitzarmenen subjektuak eta edukia

4. artikulua. Alde parte-hartzaileak
5. artikulua. Alde parte-hartzaileen betebeharrak
6. artikulua. Inklusio aktiboko hitzarmenen edukia

## III. kapitulua. Prozedura arauak

### *1. atala. Inklusio aktiboko hitzarmenak egitea, izenpetzea eta aplikatzea*

7. artikulua. Prozeduraren hasiera
8. artikulua. Beharrei buruzko diagnostikoa
9. artikulua. Inklusio aktiboko hitzarmen proposamena egitea
10. artikulua. Proposamena egitea
11. artikulua. Hitzarmena egitea eta izenpetzea
12. artikulua. Ebazpena emateko epea eta administrazio-isiltasuna
13. artikulua. Errekurtsoak eta kexak
14. artikulua. Abiaraztea, koordinatzea eta jarraitzea

### *2. atala. Berrikustea, aldatzea, etetea, ebaztea eta luzatzea*

15. artikulua. Berrikustea, aldatzea eta aldi batez etetea
16. artikulua. Hitzarmena suntsiarazteko kausak
17. artikulua. Luzapenak

### *3. atala. Inklusio aktiboko hitzarmenak egiteko prozesuko gatazkak*

18. artikulua. Inklusio aktiboko hitzarmena izenpetzeari uko egitea
19. artikulua. Inklusio aktiboko hitzarmena betetzeari uko egitea

## IV. kapitulua. Enpleguaren eta laneratzearen arloko beste erakunde batzuekiko eta beste sistema publiko batzuekiko lankidetzak eta koordinazioa

20. artikulua. Isilekotasuna eta administrazioen arteko lankidetzak
21. artikulua. Beste erakunde batzuekiko lankidetzak
22. artikulua. Beste sistema publiko batzuekin koordinatzea
23. artikulua. Gizarteratze eta Laneratze Batzordeak

## Xedapen Iragankorrek

- Lehena. Indarreko inklusio hitzarmenak berrikustea
- Bigarrena. Lanbide-Enpleguko Euskal Zerbitzua
- Hirugarrena. Indarrean sartzea

## Xedapen Indargabetzailea

### Azken Xedapenak

Lehena. Ordezko araubidea

Bigarrena. Arauen garapena

Hirugarrena. Indarrean sartzea

### Xedapenen atala

Lehen hiru artikulua dituen lehen kapituluak Xedapen Orokorak dakartza: Hala, **1. artikulua** Dekretuaren xedeari eta inklusio aktiboko hitzarmenenak araupetzeari buruzkoa da. **2. artikuluan**, inklusio aktiboko hitzarmenen gaineko definizioa ematen da: programa-dokumentuak dira, eta bertan ezartzen eta zehazten dira beharrezko ekintza espezifikoak eta horien ezaugarriak, parte-hartzaileen adostasunaz. dokumentu irekiak eta dinamikoak dira; banako inklusio-prozesua egiten dute eta betebeharrak dakartzan konpromisoa sorrarazten diete parte-hartzaileei: **3. artikuluan**, hitzarmenek bete beharreko printzipioak ezartzen dira, printzipio orokorrak nahiz espezifikoak. Azken horien artean, enplegua bultzatzeko ardatza inklusio tresna dela adierazten da, eta ondoko printzipio hauek ditu: lanerako baliagarritasun aktiboa eta enplegua errentagarri bihurtzea, zertarako-eta laneratzea eta enplegua bultzatzea, nolana ere, aukera erakargarria edo errentagarria izateko langabezian dauden pertsonentzat, baita lanean ari ez diren pertsonentzat eta, lanean ari izanda ere, behin-behineko egoeran daudenentzat ere.

Bigarren kapituluak **4, 5 eta 6. artikulua** dakartza, eta inklusio aktiboko hitzarmenen subjektuei eta edukiei buruzkoa da. **4. artikulua** azaltzen duenez, bi alde izenpetzen eta gauzatzen dituzte inklusio aktiboko hitzarmenak: alde batetik, Eusko Jaurlaritzak LANDABIDEREN bitartez; eta bestetik, lanetik baztertuta edo baztertuta izateko arriskuan dauden pertsonen. **5. artikulua** alde parte-hartzaileen betebeharrak bil-tzen ditu, eta horien arabera, hauexek dira LANBIDEREN betebeharrak: hitzartutako jarduketak garatzeko aukeran eragin duten aldaketak jakinaraztea eta inklusio aktiboko hitzarmenaren xedeari eta helburuaren ondoriozko jarduketak. Eta hauexek izango dira hartzaileen betebeharrak: lanerako prest egotea eta lan-eskatzaille gisa etengabe inskribatuta

egotea; lan bati uko ez egitea eta lanean borondatezko behin-behineko edo behin betiko bajarik ez ematea; lanean hobekuntza izateari uko ez egitea; lan-eszedentziarik ez hartzea, justifikaturiko aparteko kausarik izan ezean; eta izenpeturiko inklusio aktiboko hitzarmenaren xedearen eta helburuaren ondoriozko jarduketa guztiak egitea. **6. artikuluan**, inklusio aktiboko hitzarmenen edukia araututa dago, hots, abiaraziko diren ekintza zehatzak.

**Hirugarren kapitulua (7. artikulutik 19. artikulura) prozedura araei** buruzkoa da. Lehenik eta behin, inklusio aktiboko hitzarmenak egitearen, izenpetzearen a eta aplikatzearen gainekoa da. prozeduraren hasiera; beharrei buruzko diagnostikoa; inklusio aktiboko hitzarmenaren banako proposamena egitea, alde parte-hartzaileen konpromisoak zehaztuko dituen hain zuzen ere; hitzarmena izenpetu beharra, prestazioa sortua ahal izateko; LANBIDEK hitzarmenaren kopia bat igortzea aurreikusita dagoen laneratzearen eta gizarteratzearen arloko erakundeei; ebazpena emateko epea; errekurtsioak eta kexak jartzea eta abiaraztea; LANBIDEK hori guztia koordinatzea eta jarraitzea. Bigarrenik, inklusio aktiboko hitzarmenak berrikustea, horiek aldatzea, hitzarmena suntsiarazteko kausak eta luzapenak. Eta hirugarrenik, gatazkak arautzen dira hala nola hitzarmena izenpetzeari uko egitea, sarrerak bermatzeko errentarekin edo hitzarmenaren esparruan adosturiko edukiak ez betetzearekin lotuta dagoenean hitzarmena.

**Laugarren kapituluan (20. artikulutik 23. artikulura) lanaren eta lane-**ratzearen arloko beste erakunde batzuekiko eta beste sistema publiko batzuekiko lankidetzak eta koordinazioa ezarri dira. Hala, **20. artikuluan** aipatzen denez, datuen isilekotasuna bermatuta dago Datu Pertsonalen Babesari buruzko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoan ezarritakoaren arabera. Gainera, aurrekoari kalterik egin gabe, herri administrazioek elkarri lagundu behar diote herritarren arreta hobetze aldera. **21. artikulua** beste erakunde publiko eta pribatu batzuekin inklusio aktiboko hitzarmenak bideratzeko eta garatzeko prozesuan dagoen lankidetzari buruzkoa da, eta beren beregi aipatzen dira lankidetzak horrek izan ditzakeen alderdi zehatzak (trebakuntza eta laneko beharren diagnostikoa egitea, egin beharreko ekintzen gaineko proposamenak egitea, ekin-

tzak abiaraztea eta aplikatzea eta edukiak jarraitzea, ebaluatzea eta, hala denean berrikustea). **22. artikuluan**, beste erakunde publiko batzuekiko koordinazioa arautzen da eta **23. artikulua**k, berriz, sareko lana bermatzeko Gizarteratze eta Laneratze Batzordeak ezartzeko aukera ezarri du, helburu erkideen koordinazioa eta ezarpena errazteko. Helburu horien bidez, baliabideak izango dira, baita pertsona eta familia hartzaileen banako, gizarteko eta laneko inklusioaren beharretarako baliabide egokiak ere.

**Lehen Xedapen Iragankorrak** ezarri duenez, dekretu hau indarrean sartzean indarrean dauden inklusio hitzarmenak 6 hilabeteko epean berrikusi beharko dira. **Bigarrenean**, berriz, hauxe xedatzen da: LANBIDE aipatzean, EGAILAN erakundeaz ari dela ulertu behar da, harik eta LANBIDE zuzenbide pribatuko izaki publikoaren jardueren hasierako baldintzak arautzen ez diren arte.

**Xedapen Indargabetzaileak** indarrik gabe utzi ditu lerrun bereko edo txikiagoko arauak baldin eta dekretu honetan xedatu denarekin bat ez badatoz edo horien kontrakoak badira, bereziki Gizarteratze Hitzarmenak arautzen dituen urtarrilaren 11ko 1/2000 Dekretua.

**Azken Xedapenetan Lehenak** ordezeko araubidea ezarri du, **Bigarrenak** Dekretu honen arauen garapena, eta Hirugarrena Dekretua indarrean sartzeari buruzkoa da.

### **III. OHARBIDEAK**

---

#### **OHARBIDE OROKORRAK**

##### **I. Balorazio orokorra**

Inklusio aktiboko hitzarmenak arautzen dituen Dekretu-proiektua aurkeztu zaigu irizpena eman dezagun. Inklusio aktiboko hitzarmen horiek, inklusio hitzarmen gisa bilduak diru-sarrerak bermatzeko eta gizarteratzeko abenduaren 23ko 18/2008 Legean eta inklusio aktiboko hitzarmen gisa Lege horren aldaketan, bazterketa arriskua prebenitzeko eta



gizarteratzea eta laneratzea errazteko beharrezko gizarte edota laneko ekintza espezifikoak ezartzen dituen tresna gisa bideratzen dira.

“Aktibo” adjektiboa nabarmendu behar dugu, oso esanahia garrantzitsua baita eta halako hitzarmenen ezaugarri askori eragiten baitie; izan ere, adjektibo hori ezarri da 18/2008 Legea aldatu duen Legean. Azken lege hori gaur egun promulgatu barik eta argitaratu barik dago. Batzorde honek aldaketa horri buruzko irizpena emateari kalterik egin gabe (2010eko ekainaren 25eko 7/10 Irizpena), EGABri inklusio aktiboko hitzarmen horiek arautzeko dokumentua behar baino lehen igorri zaiola irizten zaio nolabait, oraindik indarrrik ez dagoen araua garatzeko.

10/10*i*

Halaber, ikusi ahal izan dugunez, igorri zaigun dokumentuak ez du hitzaurrerik; izan ere, horri esker, araudia lantzeko egokitasuna baloratu ahal izango genuke, baita adierazitako edukiek berauek sorrarazten dituzten zioak betetzen dituzten ere. Horrek erakusten duenez, bidalitako testua ez da behin betikoa, eta behar baino lehen igorri izanari buruz lehen esandakoa berresten da.

Alabaina, enpleguak bazterketari aurre egiteko funtsezko eginkizun nagusia betetzen duela uste izanik, Lan eta Gizarte Gaietarako Sailaren ekimena garrantzizkoa dela iruditzen zaigula esan behar dugu, baina zenbait hutsune eta hobetu beharreko zenbait alderdi ikusten ditugu.

## I. Inklusio aktiboko hitzarmenak

Batzorde honek jakinarazi zuenez (7/10 Irizpena), egun batean Langa-betuen Babesari buruzko legerian ezarritako arau aldaketa hutsen emaitzak eta esperientzia direla-eta, hain zuzen ere “jarduerarako konpromisoa izenpetu eta konpromisoak betetzea” nahitaezkoa dela beren beregi ezarrita, zalantzan jarri beharra daukagu inklusio aktiboko hitzarmenek izan dezaketen eraginkortasuna, 18/2008 Legearen aldaketak eta Dekretu-proiektu honek ezarritakoaren arabera.

Berriz adierazi behar dugu zaila izango dela hitzarmen bakoitzaren era-

giketak zehaztea, hainbat arrazoi direla-eta:

- Alde parte-hartzaileek (LANBIDE eta interesa duena) adostu behar dute “Hitzarmen” kontzeptuaren edukia, eta baliteke interesak batearitzea erraza ez izatea une jakin batean akordioak egin ahal izateko. Kontzeptuak berak eta “irekia” eta “dinamikoa” izate horrek azkenean eskubidea eskuratzea dakarten konpromisoak desitxuratu litzakete.
- “Banakoa” izateko xedeak, hots, pertsona bakoitzarentzat izateak, konpromisoak dakartza alde bientzat, LANBIDE eta interesa duenarentzat, eta konpromiso horiek betebeharrak dakartzate. Bereziki, uneoro zerbitzu eskuragarrien eta egokituen eskaintza bermatu ahal izatea da arazoa LANBIDERENTZAT, hitzarmenean izenpeturiko maila konkretuko eta banakoaren mailako konpromisoak betetzeko.

10/10 *i*

Lehenik eta behin, behar bezala landu nahi bada hitzarmena, denbora luzea behar izango da pertsona bakoitzarekin, zeren eta, lehenik eta behin, “banako diagnostikoa” egin beharra baitago. Jarraian, edukien proposamena egin behar da, eta ondoren hitzarmena izenpetu, aurretik ezarri beharreko edukiak negoziatzeko. Hori guztia eskaturiko prestazioak izateko eskubidea aintzatetsi ahal izateko egin behar da, aurretiatzko beharkizun edota baldintza gisa. Prestazioak luzatu egin litezkeela irizten diogu, eta hori ez da komenigarria pertsonentzat. 12. artikulua berak (Ebazpena emateko epea eta administrazio-isiltasuna) ezarri duenez, LANBIDEK “ukapenezko ebazpena emango du edo inklusio aktiboko hitzarmena izenpetuko du bi hilabeteko epean, eta eskaera LANBIDEREN bulegoan sartzen den egunetik aurrera hasiko da zenbatzen epe hori”.

Bereziki, 8. artikuluan (Beharrei buruzko diagnostikoa) eta 9. artikuluan (Inklusio hitzarmenerako proposamena egitea) prozedura bat azaltzen da, eta hori guztia nekez isla daiteke eduki zehatzetan eta LANBIDEK eta interesa duenak elkarrekin dituzten eta behar bezala pertsonalizaturik dauden konpromisoetan eta betebeharretan (diagnostikoaren arabera), hots, paperetik errealitatera igarotzea.

## II. Lanbide-Enpleguko Euskal Zerbitzua

LANBIDERI eskumen gehiago eratzikita, nabarmen egingo du gora erakunde horrek izapidetu beharreko espedienteen kopuruak. Alde batetik, prestazioak izapidetzeari eta, hala denean, aintzatesteari dagokionez, eta bestetik “gizarteratze aktiboko” hitzarmenen oso kopuru handia berehala egin, negoziatu, izenpetu eta jarraitzeko erantzukizunari dagokionez. Izan ere, kasu askotan -laneratzea ezinezkoa denean edo nahikoa ez denean beste barik-, laneratzearen gaineko neurri espezifikoek multzo bat bildu behar dute modu esklusiboan edota osagarrian.

10/10*i*

Horregatik, ezinbestekotzat jotzen dugu, behar bezalako funtzionamendua izan dezan, nahikoa baliabide ematea prestazioen ohiko kudeaketarekin lotutako lanaren gehikuntzari aurre egiteko, ez bakarrik ikuspegi kuantitatibotik, baizik eta ikuspegi kualitatiboago batetik ere, hain zuzen gizarteratzearen arloko tresna espezifikoak eskuratzeko eta proiektuan beren beregi aipatzen den gizarte zerbitzuaren, hezkuntzaren, osasunaren edo etxebizitzaren arloko eskumeneko beste sistema publiko batzuekiko koordinazio eraginkorra bermatzeko.

Gure ustez, ez dago nahikoa argi zehaztuta dekretu-proiektuan nola dagoen aurreikusita baliabide berrien eratzikipena bermatzea eta beste sistema batzuekiko koordinazio tresnak abiaraztea eskumenen testuinguru berrian.

Orain ere planteatzen zaizkigun zalantzak azpimarratu behar ditugu, are gehiago arriskuan jar daitekeenean LANBIDE lanerako politika aktiborako tresna izatea. Bere egituraren sendotasunaren eta tartean diren gainerako erakundeekiko koordinazio zehaztugabekoaren -orain artean-araberakoa izango da sistemaren arrakasta.

Gainera, beste alderdi batzuk ere ez dira konpondu, eta garrantzizkoak dira:

- LANBIDEREN bulegorik ez duten udalerrietan zerbitzuak eskuratzeko modua zelan konponduko den ezartzea.

- Erakunde pribatuei emandako eginkizuna argitzea.
- Azkenik, gogoratu behar da oraindik ez direla adostu politika aktiboen transferentziak.

### III. Beste erakunde batzuekiko lankidetzaz

Dekretu-proiektuaren IV. kapituluak lan eta gizarteratzearen arloko beste erakunde batzuekiko eta beste sistema publiko batzuekiko lankidetzari eta koordinazioari buruz dakartzan alderdien araupetzea, oraindik ere, orokorra da, Legearen aldaketari eginiko oharretan genioen moduan. Programak bideratzeko modua, berriz, hitzarmenetan aukera eraginkorrrak eta benetakoak eskaini ahal izateko erronka” nagusia da.

10/10*i*

Horiek horrela, eta nahiz eta inklusio hitzarmenak oro har azpikontratzeko xedea izan behar ez dela uste dugun, egia esan, hitzarmenak martxan jartzeak denbora, lana eta beste erakunde publiko eta pribatu batzuekin koordinatzea exijituko du, dekretu-proiektuan zehazturiko ezaugarriak direla-eta hain zuzen (beharrei buruzko diagnostikoa; proposamen bat egitea; lanaren, orientazioaren, trebakuntzaren eta abarren arloko alderdiak konbinatuz). Gainera, ez dago argi zelan beteko diren eginkizun horiek, ezta erakunde pribatuei zein eginkizun esleituko zaien ere (21. artikulua. Beste erakunde batzuekiko lankidetzaz).

lido horretan, eta lehen premisa gisa baliabide gehiago eman beharra berriz ere adierazita, aparteko behar justifikatua dagoenean, lehenik eta behin lankidetzaz publikoa aukeratzearen aldeko apustua egiten dugu.

22. artikuluari dagokionez (Beste sistema publiko batzuekiko koordinazioa), berriz adieraziko dugu ez dela zehazten zelan bideratuko diren gizarte zerbitzuetara eta osasun, hezkuntza eta etxebizitza zerbitzuetara. LANBIDE eta zerbitzuon arteko koordinazioak zehaztuta egon beharko luke dagoeneko zeren eta, bazterketarako arriskua edo bazterketa behin betiko uzteko, enplegua berriz ere ardatza izaten saiatu arren (egoki jokatzuz), lan handia behar izango dugu gizarteratzearen aldetik.

## IV – Oinarrizko Gizarte Zerbitzuen eginkizuna

Berriz ere adierazi behar dugu Gizarte Zerbitzuetako langileek hemendik aurrera zein eginkizun beteko duten argitu beharra dagoela, aurreikuspenen arabera aldaketak izango baitira; izan ere, orain arte LANBIDERI esleituriko lanak egin izan dituzte. Hori guztia orain parlamentuan izapidetzeko bidean den Lege-proiektuak ildo horretan osagaririk ezarri ezik.

Oharbide orokorrak bukatuta, Euskadiko Ekonomia Gizarte eta Arazoetarako Batzordeak ondokoak eman behar ditu:

### OHARBIDE ESPEZIFIKOAK

10/10j

#### 3. artikulua: Printzipioak

18/2008 Legearen filosofiaren arabera (eta ondorengo aldaketa), enplegua da inklusiorako biderik hoberena. Filosofia horri jarraituz, EGABk uste du Dekretu-proiektuak asmatu egiten duela enplegua inklusiorako ardatza izatearen aldeko apustua egitean, baina, hala ere, ez du hain egoki jokatzeko apustua zehazterakoan, zeren eta 2.b puntuan aukera “erakargarria edo errentagarria” izan behar dela esaten baita. Batzorde honen aburuz, aukera izan behar du, besterik gabe, eta hainbat lege testutan agertzen diren “erakargarria edo errentagarria” adjektiboak kendu beharko lirateke.

#### 4. artikulua. Parte-hartzaileak

1.b atalean, Gizarte Segurantzaren Lege Orokorrean erabilitako “*erabateko lanerako ezgaitasuna*” terminoaren ordean, “*erabateko ezgaitasun iraunkorra eta elbarritasun handia, eta asistentzia mailako elbarritasuna*” erabili beharko lirateke.

#### 5. artikulua. Aldeen betebeharrak. 1. puntua. LANBIDEREN betebeharrak

2. artikuluan, hitzarmenak “alde biek” bazterketa arriskua edo bazterketa

prebenitzeko eta “laneratzea eta gizarteratzea errazteko” ezarritako eta zehazturiko “programa-dokumentu” gisa definitu ondoren, 5. artikuluan alde parte-hartzaileen betebeharrak aipatzean eta zehaztean, testuan agertzen denak ez du arau bati exijitu beharreko nahikoa zehaztapenik ematen.

Alde biek adostuta egin bada hitzarmena, eta alde biek konpromisoa hartu badute, ez da onargarria LANBIDERI ezarritako betebeharrak (5.1. a eta b artikulua) hain zehaztasun gutxi izatea. Zehazkiago, geure buruari galdetzen diogu ea nahikoa den izandako aldaketak jakinaraztea, edo horiek justifikatu eta azaldu beharko liratekeen. Adibidez: baldin eta “banako ibilbidean”, une egokian, toki egokian eta hitzarmenean ezarritakoari egokitzen zaizkion baliagarritasun ezaugarriekin baliagarri ez dauden trebakuntza-ekintzak edo beste programa batzuk hitzartu badira, nahikoa al da LANBIDEK interesa dutenei jakinarazte hutsa?

10/10 

## 5. artikulua. Aldeen betebeharrak. 2. puntua. Hartzaileen betebeharrak

Argi eta garbi dugu hartzaileak lan egoki bati justifikaziorik gabe uko ez egitea dela xedea. Alabaina, idatzi den moduan, testua irakurrita ez da gauza bera esaten. Horregatik, a, b, c, d eta e atal bakoitzak, eraginkorrak izateko, askoz zehaztasun maila handiagoa behar duela irizten dio Batzorde honek. Zehazkiago:

- a atalari dagokionez, lanerako prest egotea zer den eta hori zelan neurtzen eta egiaztatzen den galdetzen diogu geure buruari.
- b atalean, lanari uko ez egitea aipatzen da, baina lan duin bati uko ez egiteaz hitz egin beharko litzateke, OITk aspaldi dagoeneko adierazita duen zentzu teknikoan edo juridikoan.
- c atalari dagokionez, uko egin behar ez zaion “hobekuntza” zer izango ote den galdetzen diogu geure buruari.
- d atalean, “lan-eszedentziarik ez izatea, justifikaturiko aparteko kausarik gabe” aipatzen da. Laneko eszedentzia Langileen Estatutuen 46. artikuluan ezarritako eskubide bat da, eta dekretu-proiektu honek

bere funtzioen neurria gainditzen du argi eta garbi bere jarduketarloan, eskubide hori mugatzen saiatzen baita.

Gizarteratzearen bideak, ahal dela, laneratzea eta prestazioen hartzaileen eta jasotzaileen lan egoeraren hobekuntza izan behar ditu ardatz. Irizpide horrekin bat etorruta, enplegua gizarteratzearen eta gizarte babesaren euskal ereduaren oinarritzko printzipioetako bat dela berresten dugu, euskal eredu hori zehazten eta egituratzen duen printzipioa; izan ere, lotura handia izan behar du kalitatezko lana eskuratzearekin.

## 6. artikulua. Inklusio aktiboko hitzarmenen edukiak

10/10*i*

1. puntuari dagokionez, EGABk egoki irizten dio pertsonak lan normalizatuari sartzeko lehentasuna aipatzeari, baina ohiko lan merkatuan, ez besteko lan ingurunean.

## 8. artikulua. Beharrei buruzko diagnostikoa

LANBIDEK garatuko duenari buruz esaten dena Legearen aldaketaren 17. artikuluan aipatua dago dagoeneko. Dekretu honek dakartzan arauen garapenak zehatzagoa izan beharko luke. Bestela esanda, EGABk uste du galdetu zaigun testuak dakarrenak ez daukala exijitu beharreko behar besteko zehaztasunik.

## 10. artikulua. Proposamena egitea

Gure aburuz, biguna da formulazioa, hartzaileek eurek izenpetu beharko duten hitzarmenean duten partaidetzari dagokionez. Komenigarria izango litzateke formulazio egokiagoa, ondoko honen ordezkia: “LANBIDEK (Enpleguko Euskal Zerbitzuak) hartzaileei azaldu beharko dizkie inklusio aktiboko hitzarmenean bilduko diren edukiak, eta egoki irizten dion neurrian, hartzaileek eurek proposaturiko edukiak sartuko ditu”. Bestela, letra etzana eta azpimarratuta agertzen dena kendu beharko litzateke beste barik.

## 12. artikulua. Ebazpena emateko epea eta administrazio-isiltasuna

Baldin eta interesa duenak eskatuta hasi bada prozedura, hitzarmena ebazteko 2 hilabeteko epea gehiegizkoa dela irizten diogu.

## 16. artikulua. Hitzarmena suntsiarazteko kausak

Batzorde honen ustetan, gizarteratzeko jarduketarako proposamenean, hauxe da normalena: ekintzen plangintza egitea, pertsonak Diru-sarreak Bermatzeko Errentaren titularrak izateko moduan izango diren epea kontuan izan barik. Horregatik, 2. puntuari logikoagoa izango litzateke prestazioa jasotzeko eskubidea galdu duenak, erabakia jakinarazi ezik, izenpetu duen inklusio aktiboko hitzarmenean hartutako konpromisoari eusten diola ulertzea, hain zuzen ere kontrakoa onartu beharrean.

10/10 

## 21. artikulua. Beste erakunde batzuekiko lankidetzeta

Ohar bide orokorretan adierazi dugunez, oraindik ere orokorra da Dekretu-proiektuaren IV. kapituluak lankidetzari eta koordinazioari buruz dakartzan alderdien araudia; izan ere, programak bideratzea erronka nagusia da hitzarmenetan aukera eraginkorrak eta benetakoak eskaini ahal izateko.

Horiek horrela, eta nahiz eta inklusio hitzarmenak oro har azpikontratatzeke xedea izan behar ez den, egia esan, hitzarmenak martxan jartzeak denbora, lana eta beste erakunde publiko eta pribatu batzuekin koordinatzea exijituko du, dekretu-proiektuan zehazturiko ezaugarriak direla eta (beharrei buruzko diagnostikoa; proposamen bat egitea; lanaren, orientazioaren, trebakuntzaren eta abarren arloko alderdiak konbinatuz). Gainera, ez dago argi zelan beteko diren eginkizun horiek, ezta erakunde pribatuei zein eginkizun esleituko zaien ere (21. artikulua. Beste erakunde batzuekiko lankidetzeta).

lido horretan, eta lehen premisa gisa baliabide gehiago eman beharra berriz ere adierazita, aparteko behar justifikatua dagoenean, lehenik eta behin laguntza publikoa aukeratzearen aldeko apustua egiten dugu.



## 22. artikulua. Beste sistema publiko batzuekiko koordinazioa

Oharbide orokorretan aipatua dugunez, ez da zehazten zelan bideratuko diren gizarte zerbitzuetara eta osasun, hezkuntza eta etxebizitza zerbitzuetara. LANBIDE eta zerbitzuon arteko koordinazioak zehaztuta egon beharko luke dagoeneko zeren eta, enplegua berriz ere ardatzi izaten saiatu arren (egoki jokatuz), bazterketarako arriskua edo bazterketa behin betiko uzteko, lan handia behar izango dugu gizarteratzearen aldetik.

Ildo horretan, baldin eta aipaturiko profesionalen arteko kontrako irizpidiak badaude, komenigarria izango litzateke zehaztea zeini dagokion erabakia hartzea, salbu eta LANBIDEK izendaturiko erreferentziako profesionala dela ulertzen bada beti, Dekretu-proiektu honen 14. 2. artikuluan xedatu denaren arabera.

## 23. artikulua. Gizarteratze eta Laneratze Batzordeak

Batzorde honek ez du ulertzen horien norainokoa eta eginkizuna. Ez dira argitzen ez eraketa, ez eginkizunak eta burutu beharreko helburuak, ezta eskua artean izango dituzten bitartekoak ere.

## IV. ONDORIOAK

---

Dekretu-proiektua izapidetzeari dagokionez, haserrea adierazi gura dugu, zeren eta Lan eta Gizarte Gaietarako Sailak premiazko prozedura erabili baitu EGABk irizpena eman dezan.

Halaber, inklusio aktiboko hitzarmenen eraketa oso gai garrantzizkotzat jotzen dugula adierazi nahi dugu; hitzarmenon prozedurako osagaiak zailak dira zehazten eta ulertzen. Sistema zaila iruditzen zaigu, erakunde askok parte hartzen duen sistema, eta zenbait alditan nahikoa judizio-elementurik ez dugun gaiei buruzko iritzia ematera behartzen gaituzte, are gehiago hain presa handiz eginiko eskaera izanik.

Ondorioz, ezin eman dezakegu Dekretu-proiektuaren eduki orokorrari buruzko iritzirik, lehen adierazitakoez gaindiko beste iritzirik.

Bilbon, 2010eko uztailaren 30ean

O.E.: Presidentea  
Juan María Otaegui Murua

Idazkari nagusia  
Francisco José Huidobro Burgos





CES  
EGAB

Consejo Económico  
y Social Vasco

Euskadiko Ekonomia eta Gizarte  
Arazoetarako Batzordea

**©Argitalpena:** Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordea  
Gran Vía 81, 7. solairua  
48011 Bilbao. Bizkaia  
[www.cesvasco.es](http://www.cesvasco.es)

**Maketazioa:** Cuatrobarras

**Inprenta:** Imprenta Gestingraf

**Lege Gordailua:** BI-2086-2010